

EUSKADIKO UDALEK ETORKIZUNeko ERRONKAK AZTERTUKO DITUZTE GARDENTASUNEAN AURRERA EGITEKO

- Ehun bat arduradun politiko eta tekniko EUDEL-en bilduko dira gaur, udal gardentasunerako lanari dagokionez euren udalek egindako ibilbidea bateratzeko.
- ITA 2014 adierazle berriak eta “Informazio Publikoa Eskuratzeko Eskubidea” dira Gardentasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sarearen barruan galdera gehien sortzen dituzten gaietako bi.
- Euskadiko udalerriek hainbat gidaliburu eta tresna dituzte lanerako: bide-orri bat, Jardunbide Egokien gidaliburua eta Aginte Koadroa, akzioak gardentasunez planifikatu, antolatu eta kudeatzeko. **Materialak eskuragarri daude <http://www.eudel.net/destacados/transparencia/> helbidean*

Bilbo, 2014ko urriaren 22a. Gaur, urriak 22 (asteazkena), EUDELe Bilbon duen egoitzan saio tekniko bat egingo da. Bertan, ehun bat udal arduradun politiko eta tekniko bilduko dira, hainbat adituren hitzaldien inguruan hausnartu eta eztabaidatzeko, udal gardentasunean aurrera egiten jarraitzeko eta horrek denboran iraun dezan eman beharreko pausoak zein diren identifikatzen saiatzeko.

Topaketa hau Gardentasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sarearen testuinguruan antolatu da, eta, bertan, **Nazioarteko Gardentasuna** erakundeak eta “**Informazio Publikoa Eskuratzeko Eskubidea**” gaiaren inguruko adituek hartuko dute parte, udalentsat ekarriko duen inplikazioa aztertzeko, hala legeen ikuspegitik, nola operazioaren eta barruko kudeaketaren ikuspegitik.

Saio honekin, EUDELek jarraitutasuna eman nahi dio Gardentasunaren esparruan gaurkotasunekoak eta tokiko gobernuentzat interesekoak diren gaien dibulgazio lanari. Saio honez gain, beste hainbat jardunaldi monografiko eskaini zaizkio gaiari sarearen barruan. Adibidez, honakoak zerrendatu daitezke: Gardentasunaren eta Datu Pertsonalen Babesaren arteko bateragarritasuna (2014ko otsaila), Gardentasuna abian jartzeko udal esperientziak (2013ko urria), Gardentasunaren eta Gobernu onaren arteko harremana, eta Gardentasunaren Legearen proiektuaren lehenengo analisia (2013ko ekaina).

EUDELek Gardentasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sarearen sorrera bultzatzen du, tokiko gobernu gardenak, irekiagoak eta hurbilak eskaintzeko estrategia bateratua garatzea ahalbidetuko duten ekintzen diagnostikoa, babesa eta jardunbide egokiak sustatzeko espazio gisa.

Gardentasunean aurrera egiteko lankidetza

Gardentasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sarea 2013ko urtarrilean jarri zen abian, eta, urtebete eskaseko ibilbidean, **31 kide** ditu dagoeneko: hiru lurraldeetako 30 udal eta Txorierriko Mankomunitatea. **Gardentasunez lan egiteko proposamena Euskadiko udalek eurek helarazi zioten EUDELi, Tokiko Berrikuntzako Agenden TBaren (2009-2013) eta 2012. urtean egindako azken Berrikuntza Diagnostikoaren markoan.**

Sarera **atxikitzea** boluntarioa da, udalerri bakoitzak gardentasuna lantzeko duen interesaren eta eskuratutako esperientziaren eta baliabide pertsonalen arabera (udal bakoitzeko ordezkari politiko 1 eta arduradun tekniko 1). Zentzu horretan, Sareak egindako material guztiak udalerri guztietara zabaltzen dira, eta, era horretan, ezagutzen, jardunbide egokien eta estrategien trukea errazten da Euskadiko udalen artean. Truke hori oso baliagarria da udal txiki eta ertainentzat eta gardentasunean ibilbide txikiagoa duten udalentzat.


GARDENTASUNEAN AURRERA EGITEKO GIDALIBURUAK ETA TRESNAK

(eskuragarri daude <http://www.eudel.net/destacados/transparencia/> helbidean)

- **Udal Gardentasuna abiarazteko eta kudeatzeko gidaliburua**

Gardentasun maila handia lortzeko asmoz udalek herritarrei helarazi beharreko informazioa argitaratu eta etengabe gaurkotzean datza metodologia.

Zeregin horretan laguntzeko, gidaliburua **AGINTE KOADRO** batekin dator, ekintza zehatzen egutegi batekin eta tartean sartutako alorren zerrendarekin batera.


- **Udal gardena lortzeko jardunbide egokien katalogoa**

Euskadiko eta Estatuko 70 udalen esperientzien bilduma (bertsio berria prestatzen ari da).



- **Gardentasunerako Bide Orria: estrategia eta tresnak.**

Informazio ekonomiko-finantzarioa argitaratzeko gomendioak biltzen ditu.



* Sarearen egungo kideak

30 udal eta Mankomunitate 1 (Txorierri)

-	10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak: Abanto Zierbena, Alonsotegi, Balmaseda, Derio, Elorrio, Etxebarri, Güeñes, Laguardia, Ugao-Miraballes, Zalla eta Zamudio.
-	10.000 eta 50.000 biztanle arteko udalerri ertainak: Amurrio, Andoain, Arrigorriaga, Basauri, Bermeo, Elgoibar, Ermua, Eibar, Hondarribia, Galdakao, Leioa, Mungia, Portugalete eta Santurtzi.
-	50.000 biztanle baino gehiagoko udalerri handiak: Barakaldo, Bilbo, Getxo, Irun eta Vitoria-Gasteiz